

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren helburu nagusietako bat da euskararen erabilera indartzea donostiarrei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, sentsibilizazioa bultzatuz eta euskara ez dakitenak euskalduntzera erakarrituz. Xede horrekin, 2020ko urriaren 13an “Donostiako Euskararen Plan Orokorra” onetsi zen, plan berria onartu artean indarrean egongo dena. Euskalduntze-alfabetatze arloari dagokionez, helburua da euskalduntze-alfabetatze arruntera ikasleak erakartzeko ahaleginarekin batera, lehentasunezkoa izatea gizarte esparru guztietara zuzendutako ikastaro laburragoak sustatzea: guraso, erretiratu, ostalari, merkatari, 14-15 eta 16-18 urte bitarteko gazte, aisialdi-begirale, kirol-entrenatzaile eta etorri berriak, besteak beste.

Gauzak horrela, euskaltegien jardunak duen interes publiko berezia kontuan hartuta, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak arauak zehaztu ditu euskaltegien jarduna diruz laguntzeko.

Donostiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 2024-2026 jasota daude helburu hauek:

- Helburu estrategikoak:

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea

- Helburu zehatzak:

Ikasleen euskalduntzea eta alfabetatzea sustatzea, alor horretan pausuak emateko euskaltegiek gauzatutako proiektuetarako dirulaguntzak emanez.

Honenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 29an eskuordetza emanik, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketa eta Euskarako zinegotzi-ordezkariek Donostiako Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hauek onar ditzala:

ERABAKIAK

1. Donostiako euskaltegi homologatuen xede berezietako taldeentzako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdiak egitea.
2. Dirulaguntzetarako 135.150,00 € bideratzea, eta gastua Euskara Zerbitzuko 2026ko aurrekontuaren 481.01 kontu sailari egozteak.
3. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespina ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETA ETA EUSKARAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA